

AURREA HARTU SENDATZEKO

- Ez egin proba baldin eta hemorroideak odoletan badituzu eta hilekoarekin bazaude. Hala bada, ez egin proba harik eta 3 egun pasatu arte odol-galtzerik gabe.
- Ez nahasi kakak pixarekin.
- Ez duzu baraurik egon behar, ezta dieta berezirik egin behar ere, proba egin aurretik.
- Botikak ohi bezala har ditzakezu, ez baitiote probari eragiten.
- Ez edan hodian dagoen likidoa. Likido horrek ahoa, begiak edo azala ukitzen badizkizu, berehala garbitu ur askorekin eta, beharrezkoa iruditzen bazaizu, jo ezazu zure ohiko sendagile edo farmazialariarengana.
- Gorde hodia haurrek ez hartzeko moduko tokian.
- Proba galduz gero edo proba egitean zernahi gorabehera gertatuz gero, jakinarazi Programako arduradunei.

Argibide gehiago:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Koloneko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programa

Francisco Bergamín 2 bis. 31003 Iruña

Tel.: 848 42 34 98

precolon@navarra.es
www.cancercolon.navarra.es




LAGINAK BILTZEKO JARRAIBIDEAK

KAKETAN ODOLIK OTE
DAGOEN IKUSTEKO PROBA

HAUTA90
KOLONEKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO
PROGRAMA




1



Atera hodia poltsatik

2




Egiaztatu hodian zure izena
agertzen dela.

3




Jarri komuneko papera
komunontziaren barruan eta
eseri alderantzizko posturan,
ahal izanez gero.

4




Kendu tapoi berdea eta
atera kotoi-txotxa.

5



Jarri kotoi-txotxaren punta
kakaren gainean eta ibili alde
batera eta bestera,
ezker-eskuin eta sartu-atera.

6



Aski da kaka pixka bat
hartzea.

7



Sartu kotoi-txotx berdea
hodian, ongi itxi eta eragin.

8



Gorde hodia poltsan eta
sartu hozkailuan (ez izoztu),
harik eta zure osasun etxera
eraman arte (3 egunez,
gehienez).